

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

260n. zenbakia  
epaila 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE

## **PEDRO PUJANA EUSKAL IDAZLEA**



*Igaz, Pedro Pujanak urrezko luma jazo zuen, Ana Madariaga diputatuaren eskutik.*

# TABAKOA BEAR-LEKUAN?

Eraikuntzek gizakietan gaixotasunak eragin leikeez, eraikuntzok gaixorik egon ezker, jakina.

Badira eragile asko eta asko eraikuntzak gaixotu leikeezanak. Orreotariko batzuk, barbarako, ingurugiroaren kutsatzaileak dira. Kutsatzaile onetan batez be kalte-kaltegarria da tabakoaren kea.

INSL erakundeak kaleratutako txostenaren arabera, tabakoaren keak 300etik gora osogai kaltegarri daukatz. Ke orrek tokiaren auts kontzentrazioa aldatuten dau.

Ganera, aize egokitua egon ezker, ke ori eraikuntza osoan zabalduko da.

Ori guztiori dala-eta, INSL erakundeak erretzaile eta erretzaile ez diranak dagozan lekuan erretzen ez dabenen eskubideak bete bear dirala adierazo dau, bein eta barriz. Langiro kutsatuak saiestu bear dira errotik.

Droga-menpekotasunean jakituna dan Juan Carlos Melero psikologoaren berbetan, bearginen osasunak garrantzi andiagoa euki bearko leuke enpresentzako. Gauza jakina da, erretzaileak diran bearginek gaixotasun-baja geiago daukena besteek baino.

Beste alde batetik, erreteagaitik gaixotu dana osatutea ez da bape merkea izaten.

Ganera, egia da erretzeile dan bearginaren errendimendua apalagoa dana, denpora luzeagoan gaixorik egoten dalako. Alan bada, produktibitatea be txikerra.

WHO erakundeak dinoanetik, tabako-ke barik bear egitea osasuntsuagoa ez eze, seguruagoa be bada.

Erretzaileen ondoan bear egiten dabenek (erretzeile beartuak) erretzaileen keak eragindako gaixotasunek jota egoteko eukera andi be andiak daukez: begietan azkurea, sudur zein samako narritadurea, bronkitis kronikoa, alborengoa, asmea, birikietako disfuntzioak, gaixotasun koronarioa eta biziena.

Bai, eragin be, erretzen ez dabenen artean be biziena eragin leike tabakoak. Alantxe dakar, bada, EEBB eta Gobernuko Osasun Idazkaritzek bertako Osagileen Alkartegaz batera argitaratutako txostenak. Txostena ikerketa luzearen ondorioa izan da.

Bertan egindako autopsietan argi lotu da erretzaile beartuak tabakoak eragindako bizienak jota il leitekezana.

Zigarroaren kea bera artuten dabenek birikietako geruzen zeluletan lotuten dana argiro erakutsi dau ikerketa orrek.

British Medical Journal aldizkariak argitaratutako txosten bitan argi eta garbi agertu da, erretzaile beartuak birikietako bizienak edo gaixotasun koronarioak jota egoteko aukerak andiak dirana, euron bizitza osoan bein be agora zigarrorik eroan izan ez arren.

Egin be, erretzaile beartuak goian aitaturako gaixotasunek jota egoteko aukerak %26an egiten dau gora. Alandaze, erretzaileen ondoan bear egin edo bizitea osasunarentzako arrisku-arriskugarria da.

Zenbat eta ondoko erretzaileek zigarro geiago erre, zenbat eta erretzaileen ondoan urte geiago emon, aibat eta andiagoa izango da arriskua.

Britainia Andiko Osagileen Alkartearen esanetan, milaka erretzaile beartu gaixotu edo ilten dira urtero munduan zear. Alperreko eriotzak, saiestu leitekezan eriotzak.

Orretarako, baina, neurri prebentiboak artu bear dira.

Bearlekuan erre egitea? Ez mezedez. Eskerrik asko.

INIAKI MARTIARTU

Insl= Instituto Nacional de la Salud Laboral

WHO= World Health Organisation

**ZUGATZ BAT SARTU DAUANARENA  
EZ DA ALPERREKO BIZITZEA**

DANTE

## PUXANA'TAR PEDRO (G.B.)

Berrogeta amar bat urte izango dira Puxana ezagutu nebala. Gasteiz'en izan zan, laun-une zabal eta legor baten, ostaz-ostaz bizi ziran zugatz batzuren gerizpean. Arabarra zan, baiña Bizkai'ko euskerea egiten eban. Geiago be bere anaia eta Morga'ko abadea zan D. Enrike ezagutzen neban eta onen anai lez ezagun egin jatan Pedro be.

Samintasun apur bat artu gendun gure Pedro Josulagunen artera sartu zala entzun genduan. Zergaitik ori? Baiña bere bidea jarraitu bear eban. Izan be bakoitxak daukagu bide bat mundu onetan egiteko.

Josulagunen artean Patxi Altuna ezagutu eban eta bien artean aztertu eben euskal-aditza. Ondo aztertu be! Ete dago Bizkaierearen aditzari buruz Pedro'k idatzi eban maillara eldu dan azterketarik? Ez dot uste.

Baiña urteak joan urteak etorri, gure Pedro Josulagunen artetik, urtenda, Gipuzkoa ta Bizkai'ko errietan abade aurkitzen dogu, idazle -lana itzi barik. Ederto euskeratu eban Bizkai'ko Forua, Estornes Lasa'ren lege-aldeko laguntzaz. Irakurle, irakurri ez ba'dozu irakurri egizu gure "lege zarra" euskeraz dakarren liburu eder au!

Puxanak, gaiñera, zaletasun aundia izan dau euskalkiak aztertzeke eta batez be Olaeta bere erriko euskerea aztertu dau, Araba'n egiten dana, baiña Bizkaiera edo, gaur batzuk esaten daben lez, men-debaldeko euskalkia.

Orrez gaiñera, noizean bein gure ZER onetara idaz-lan argi ta zeatz bat bialtzen izan dausku. Pedro'ren lan oneik beti izaten dira egokiak euskerar- arloa jorratzeke eta erriak apurka-apurka nastatu dauzan gauzak bideratzeko. Itzi daigun alde batera galdu-antzean daukagun aditz zarra, Pedro'ren ustez Aurre-Apraiz'ek ain ondo darabilena eta gogoratu, esaterako, ze alde dagon "ur asko" esatetik ur-aundiak esatera, erderaz illuna dan "mucho" ori zeazten dala. Eta zenbat gauza geiago!

Urteak aurrera doaz eta, emen omenaldia an Euskaltzaindiaren "oora", emen Euskerazaintza eta an euskeraren etorkizuna, Pedro'ren urteak joan dira eta Aitak bere altzoan artu dau betokotasun zoriontsurako. ZER'en irakurleen eta beste euskaldun askoren izenean, eskerrik asko eta gero-arte.

ZER'EN IZENEAN  
OLAZAR'TAR MARTIN, ZUZENDARIAK

=>=> =>=> =>=>

### Pedro Pujana Aguirregabiria jauna

(Abadea)

(Goian bego)

11letak

**GAUR,**  
astelena, 5  
**Arratsaldeko**  
**7,00retan**

**BILBOKO**  
**Begoñako**  
**Gure Amaren**  
basilikan

Bilbon il zan atzo, 2001ko otsailaren 4an, 85 urte ebazala, Eleiza Amaren Sakramentuak eta Aita Santuaren Bedeinkaziñoa artu ondoren

Bere loba, Maria Dolores Aranguren, Jose Barbera, Kepane Aranguren, Pilar Aranguren (Angel Aranaren alarguna), Carmen Aranguren eta Gema Aranguren, Nekane Aranguren, Alexander Zubia, Irati Zubia eta Asier Zubia, eta beste senideak

(Funerarias Bizkaia. Telf. 94 439 56 18. Bilbao)

---

## BERTSOAK ABESTI

---

### EUSKERAREN ALDE ERESEKIA

Gure lenauko asaba zarrak  
Euskera utsean antxiña,  
gutziz ederto mintzatzen ziran,  
ai eurelakoak bagiña,

gaurko euskotar zeregiña  
Euskera zaintzen alegiña,  
zaindu ez bakarrik baita aberastu  
izkuntza aiñ zar ta bikaiña.

bis Europako izkuntz zarrena,  
Jaungoikoak guri emona,  
naiz txiro aberatz, ume, zar, gazte  
gizonezko ta emakumeak,

bis mintzatu daigun alkarrekin  
seme alaba ta illobakin  
Jainkoa lagun gure Euskerak  
beti betiko iraun dedin.

### ADIMENAREN GARALLE BETI MAITASUNA

Atzerritik datorkit  
nire senargaia,  
itsututa zegonik  
enekian baia,  
bete bedi gurekin  
Jaungoikoaren naia,  
ai izango baziña  
odoleko anaia  
ai izango baziña  
odoleko anaia;  
biotza zuretzat  
bakea niretzat,

alkar biziko giña  
bakotxa beretzat,  
eskonduta ostera  
bata besterentzat  
eskonduta ostera  
bata bestearentzat.

*(Senargaiak:)*

Zugaz izango nintzan  
zorion betiko,  
agur, banua baña  
ezaitut aztuko,  
ezaitut ene maite  
sekula iñoiz aztuko,  
biotz barruko begiz  
zaitut ikusiko,  
gazte lirain lerdin,  
arpegiko begiakin  
ikusit ezarren.

*(Emazte gaiak:)*

Biziko naz zurekin  
luzaro luzaro.

*(Senargaiak:)*

Jaunan laguntasuna -  
izango da oparo.

*(Alkar besarkatuz:)*

Alkar biziko gara orain eta gero,  
al dala baketsu, al dala baketsu  
senar-emazte moduz, beti zoriontsu,  
senar-emazte moduz, beti zoriontsu.

(Fandango)

### SENTZUNDUN NESKA MUTILLAK

Ator gurekin batera,  
erdu mutil erriko plazara,  
eusko oiturak zaintzera,  
euskotar gazte zintzua bazara.  
An batuko gara erriko gazteak  
gure antxiñako asaben ekandu garbiak  
berbiztu nairikan Euskadi guztian,  
eta alkar maitasuna geitu biotzian.

(ariñarin)

- bis { Kanean gora, kanean bera,  
neska mutillak anak gora;
- bis { erririk-erri gabiltza bakea billa,  
eskeñirik maitasun opilla.
- bis { Eusko gazte garanok emen gabiltza  
zabaltzen euskotar bizitza.
- bis { Gora Jaungoikoa, gora Lagi -Zarra,  
Gora Euskera gure izkuntza.

(Elantxobetarrai erbestean, batezbe Ipar Amerike-  
tan eta Kuban, Makues izenordeagaz deituten deu-  
tse).

Elantxobetarra naz  
ezin dot ukatu  
baña aspaldi ontan  
naiko naz lotsatu;  
erriko gazte batzuk  
Jainkua bastertuz,  
erbesteko marxismo  
aintzakotzat artu,  
makuesak diranik  
eziñ ezagutu.

Jeltzailleak ei dira  
euskaldun burgesak,  
olan diño oraiñ  
gaurko makuesak;  
auxe bai da benetan  
gauza aldrebesa  
iñori burges deitu  
egiñik amesak,  
eurek bizi izateko  
bailitzan makesak.

Naiko nasteborraste  
ditue ikasi  
egi antzeko gauzak  
egitzat ikusiz;  
lapiko baten baña  
ezin leiz egosi  
okela ta arraña  
naizta merke erosi,  
ez jakiñen artean  
okerra nagosi.

Danok gara errudun  
erritar maitiak  
ez irakastarren  
sakonki egiak;  
biotzez maite beti  
lege zar garbiak,  
Aberri maitasunez  
gaurkotuz guztiak,  
bazterturik betiko  
marxismo eretxiak.

**LERTIBE**  
ANDONI AMUTXATEGI



**ALDIZKARI ONEK**  
**BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN**  
**DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

## "ARKALAZ" ALDIZKARIA (ZORNOTZA'N)



Batzarraren maia: Fernandez'tar Joseba koraleko elkartearen lendakaria, Lobera'tar Gotzon Aldundi'ko arduraduna, Fundarena'tar Ana Ester Udaletxeko arduraduna, Aurtenetxe ta Eloorriaga'tar Karmele eta Ingunza ta Renteria'tar Maite "ZORNOTZA EUSKERA ALKARTEA'ren aldizkaria" atara dabenaren ordezkoko ziranak osotu eben. Beste gazte batzuk be egon ziran mai-aurrean, aldizkariaren aurkezpena irakurri ostean Alkartearen kide eta arduradunak dirala konturatuz: Legina'tar Xabier, Ingunza'tar Unai, Iturbe'tar Andoni, Korta'tar Asier, Goienetxe'tar Gorka, Jauregi'tar Igor, De Pedro'tar Alex, gazte oso jatorrak diranak eta arduradunak, ikusten dan lez.

Maiko aurkezleak danak mintzatu ziran koral-elkarteen lendakaria asita: bear daben gutzirako tokia prest daukiela Alkarteari eskainiz: Aldundiko arduradunak be bardin, bear daben laguntza aldetik; eta bai Udaleko arduradunak be, bear daben diruaren laguntzagaitik. Dana Euskera'ri eskaini eutsoen berba gorezgarriakaz, baiña danez gain, Aurtenetxe'tar Karmelek esan ebanaz geratu nintzan: erri guztietan asi zirala erriko aldizkariak Euskaraz argitaratzen, eta gu ez gara gauza izango beste ainbeste egiteko? Askotan entzun dot gure arrear: Euskera Batua Bizkaieraren amaiera edo eriotza izango zala a sortu zanetik, eta Euskalerra'ko ainbat arraldoi aundi ikusi nebazan oso kezkatu rik, euren indar eta ardura guztiaz ori gertatu ez daiten. Aita

Arana'tar Pedro-Juan'ek esan eustan, gure kuru-abestien biltokian Zornotza'ko aldizkari barri baten aurkezpena egongo zala 2001'an urtarrilla'ko 19'an arratsalde'ko 6'retan, eta gure arteko gauza eder oiek jakin-egarria sortzen daben lez, bertara joateko beartu ginduzan.

Aldizkaria ikusi nebanean, oso dotorea bera eta atsegin guztiz egiñekoa iruditu jatan. Aldizkariaren aurrealdean Lauzirika'tar Daniel, gure kuru-abestien urte askotan, abeslari oso jatorra eta ona dana eta benetan poztu nintzan. Leenengo, lan guztia euskeraz idatzita dagolako: Bigarren, Bizkaieraz: Eta irugarren, Zornotza'n, ordua zalako gazteen artean erri-miña agertuaz, arduratu egin daitezcan gure erriaren Euskal-Nortasuna sendatuz osasun onenagaz aurrerantza bultzatzeko.

Santi'ri itaun egiten neutson orduan: "Eta zuen ostean zer?"

Bere erantzuna beti izan zan bardiña: "Atzean datozen belaun-aldien naia izango zala". Eta ikusten ari garana oso arduradunak dirala, eta Bizkaiera, euren Lurraldeko izkuntza biotz-biotzean maitasun aundiagaz sartuta daukela.

Nik uste dot, ori dala bidea gure Euskalerra maite oneri askatasuna emoteko.

**ATUTXA'TAR PAUL  
ZORNOTZA'N 2001'an urtarrilla'ren 24'an**

---

## ZIORTZA (VIII): LEKAIDEEN EDESTIA

---

### MUNDUAN

Ziortza lekaide-etxeari buruz egindako idazlanak amaitu ondoren, azkenengo idazki bi oneitan olako edo antzeko etxeetan bizi diran notiñai begiratu dagiegun.

Antziñakoa da gizarte osoan Jainko-zaleak eta otoitz-zaleak alkar-bizitza egiteko oiturea. Gogoratu daiguzan ezagunenak.

India'n Lama deritxon arduradunak daukezan taldeak asko dirala etxe aundi ta ederretan bizi dira. Badabez otoitz egiteko curen erak eta tramankuluak. Badabez, baita euren arerioak eta zapaltzailleak. Noizean bein emendik ikusten dogu Dalai Lama bakearen aldeko itzaldiak egiteko, bere jazki bereziaz agiri dauala. Ba-dakigu gaiñera erbesteratuta dagoala Txina'tarren gorrotoak bultzatuta sortu dan jazarpen onetan. Orain-tsu erbesteratu berar izan da beste lama bat.

### ISRAEL'EN

Jaunaren erri aukeratuan, Israel'en, antxiñakoa da Elias Igarlea eta au be beste igarle batzukaz bizi zan Karmel mendian, Jainkoaren bakartasuna aldezten. Eta ez daigun aitzu Baal guzurrezko Jainkoak be bere igar-leak eukazala. Berrogei agertzen dira, baiña zenbaki au sinbolikoa da.

Elias'en ondoren Karmel mendian igarle-taldeak jarraitu eban, onein artean Eliseo ta bere lagunak.

Karmelo-mendi orregaz zer-ikusi aundia dauke gaurko lekaide Karmel'darrak.

Baiña lekaide bizitza argiagoa agertzen da esenitarren artean. Oneik Kristo baiño berreun bat urte lenago sortutako taldeak ziran eta Itxaso Illaren inguruan izan ebezan curen bizilekuak. Oraindiño be an ikusi daike-guz etxeen ondakiñak.

Esenitarren artekoa zan Joan Bateatzaillea eta Jesus bera be ez egoan lekaide onein bizitzatik ain urrin, naizta Jesus'en pensabidea eta esenitarrena ezbaridiñak izan.

Esenitarrak alkar-bizitza egiten eben eta bear ba'da batzuk banakako bizitza be bai. Gaiñera, geroko lekai-de kristiñauak egingo daben lez, liburuak idazten ziran zaleak. Ainbeste liburu aurkitu dira oraintsu eurak idat-zitakoak Kumram'eko leizetan. Liburu oneitan argi agertzen da curen otoitz-zaletasuna eta Jainkoaganako maitasuna baita curen araudi zeatzak be. Ereserki

batzuk Itun Barriko liburuetan agertzen diranen antze-koak dira. Narruki aberats areitan Jainkogurtzarako otoitz eta abesti arrigarriak dagoz.

Jesus il eta berbiztu ondoren be jarraitu eban esenitarren biziareak. Ete dauke zer-ikusirik laster etorri ziran lekaide kristiñauakaz?

### ELEIZAN

Jesukristo gure Jaunak ez eban jokatu lekaide lez. Bere jarraitzaille edo ikasleakaz bizi zala agiri da, baiña ez basamortuan, lenengo berrogei egunak izan ezik, ez bakartadean. Beti agertzen da erri-barruan eta beartsuen inguruan. Baiña bai beti otoitz-zale: "Mendi-ra joan zan bakarrik otoitz egitera", "Gau osoa otointzean igaro ondoren" amabiak aukeratu ebazan, ikasleak itxasoan beste aldera joan ziranean, bera mendira joan zan otoitz egitera. Oiturea eukan Orio-Mendian gabetan otoitz egiteko eta antxe aurkitu eban otointzean Judas saltzailleak...

Gero jarraitzailleen artean beti izan dira zertan edo artan Jesus'eri era berezian jarraitu eutsoenak: gaisoen laguntzailleak, irakasleak, artzaiñak eta abar. Olakoen artean ipiñi bear doguz otoitz egiteko basa-mortura joan ziranak. Jarraitzeko era bat da au be, karisma edo Jaunaren erriari laguntzeko doi bat be bai.

Lenengo lekaideak, diño, sinisbako giroan bizi zan eritik eta aurrean erabilliak ziralako joan ziralda basamortura. Ba-leiteke. Baiña laster biurtu zan lekaidetza kristiñau izateko bide lez.

Eleizearen edestian naikoa arin eta ugari agertzen dira lekaideak, batez be Asia'n eta Egipto'n.

Lekaide-bizitza au, kasu batzutan beintzat, baragarri biurtu zala dirudi: Gau ta egun zutunik egoten ziran batzuk, estilitak bizitza osoa igaroten eben bide-kurutzeetan jasoten ebezan ageetan, iñoz jatzi barik Simeon estilitaren antzera, beste batzuk sekula iñogaz barbarik ez eben egiten edo oso gitxitan... Gogoratu askoz geroago Donemiliane'n Millan santuak zelako bizi-modua eroian toki aretan erakusten dan gela aretan, leiotik jatekoa sartzan eutsoela...

Baiña lekaidetza gauza sakona zan eta zabaldu be egin zan, frutua ugari emoteko. Era askotako lekaideak sortu ziran, esaterako zenobitak alkar-bizitza, eremitak basamortuan, monjeak bakartadean eta abar.

Olakoen artetik Eleizeak laguntza aundia artu eban, notin santuak eleizaren laguntzara agertu ziralako.

## BIZKAIA

Gogoratu Martin deuna, lekaide zala Tours'ko gotzain egin ebena irugarren gizaldian, Gotzaiñik ospetsuenak, esaterako Juan Krisostomo deuna, Nazianzo'ko ta Nisa'ko Gergorio deunak. Basilio deuna, Atanasio Deuna aritarren aurka ain pseudo jokatu ebana, Agustin Deuna, Biblia lateratu eban eta Belen'en lekaide lez bizi zan Jeronimo deuna. Onek euskaldun bateri esku-titz gogor bat egin eutson. Prisziliano 'tarra zan euskal-duna eta Bijilanzio beronen izena eta Jeronimo'k diño-tso eskutitz orretan izen egokiagoa izango leukela "Dormitanzio" eta ez Bijilanzio.

Aita Santuak be asko etorri dira lekaideen artetik, esaterako lar gogorra izan ba zan be VII Gergorio. Baita aitasantutza itzi eban bakarra izan zan Zelestino. Ezin izan eban jasan Erroma'ko biziera lizuna!

Lekaideak etorten ziran Batzar Nagusi edo kontzi-lioetara be, iñoz gogorkeri aundiz be bai, Nizea'ra esa-terako, makilla aundiakaz bide gogorrez curen ustez zuzena zan bidea ezarteko: monofisitak ziran.

Baiña irugarren edo laugarren gizaldirantza lekaide-ztat bide barriak artu ebazan, Benito Deuna aurrengo zala eta "ora et labora" "Otoitz eta lan" bide lez artuta, zintzotasun aundian bizi izateko. Beti ez eben lortu baiña bai sarritan.

Ez dogu aiztu bearko sortaldetik sartaldera lekai-deak ekarri ebazan Kolunbano deun ospetsua. Olako zerbait egin izan eban Atanasio deunak be, Jeronimo deunak be nai izan eban.

Lekaide sendi barrien artean batzuk aitatu daiguzan: Bernardo deuna, santu gozoa, Zister 'en sortzaillea. Ba-dakigu Zister'tarrak zelako onurak ekarri ebezan sar-talde osora. Au geroago aztertuko dogu. Edo Mauro deuna, edo lengo laztasunera lekaide -bizitza eroan nai izan eban Romualdo deuna, eta Kartuja'ren sortzaile izan zan Bruno deuna.

Ainbeste milla ta milla gizonak zelako onura berei-zia ekarri ete eutsoen euren aldiko munduari?

Ez dogu aiztu bear aldi areitan mundua oso atzera-tua zala eta mundu basati oneri lekaideak lenengo ta bein bizitza barri baten itxaropena iragarri eutsoen ber-baz eta bizitaz, otoitza zabaldu eben mundu aretara, eleizkizunak bizi-bizi egiten irakatsi eben... Labur esa-teko, Jesus'en Barri Ona zabaldu eben: Lekaideak ziran Eslaboni-aldera joan ziran Zirilo ta Metodio ondo ezagutu -bearrekoak. II Gergorio Aita Santuak Alema-nia'ra bialdu eban Bonifazio Deuna, Irlanda'ra joan zan Patrizio otoitz egile sutua, Ingalterra'ra joan zan Agustin Kantorberikoa ta abar.

Baiña ez uste izan Barri Ona ta Otoitza baiño beste onurarik ez ebela ekairi lekaideak: Eurak izan ziran lurra lantzen irakatsi ebenak, etxeak egiteko trebetasu-

na zabaldu ebanak. Eurak egiten ebezan euren eleizak, ez beti trebetasun aundiagaz lekaide-etxe batzutan ikusi daiken lez. Eurak irakasten eben irakurten eta idazten, erregeen eta erritarren ezitzaille izan ziran. Gogoratu esaterako Leire, an sortu zan Naparroa'ko erreñua. Baiña batez be curen lana izan zan liburugin-tza. Grezia'ko jakituria gure artera eurak ekarri eben eta eurak idatziak dira gaur billaketa egiteko daukagu-zan ainbeste narruki. Kordoba'ko Eulojio Gotzaiña, zortzigarren gizaldi inguruan Leire'ra etorri zanean arrirituta birtu zan lekaide-etxe onetan aurkitu eban jakituriagaz eta liburutegiagaz.

## EUSKALERRIAN

Egin ete eben olako lanik Euskalerrian Lekaideak?

Bai. Zalantza barik. Gai onen billaketa ez daQo oraindiño zeatz eginda. Egunen baten egingo da argita-sun aundiagoa. Baiña auxe bai badala ukatu eziña: Iru-garren edo laugarren mendea ezkerro izan dirala lekai-deak Euskalerrian, aldi orreitako kontzilioetatik barriak diñoen lez.

Gaurko lekaide toki bi aitatuko doguz Euskalerrian: BataAraba'ko Baldegobia'n eta Trebiño-inguruan bes-tea. Bigarren lekaide toki au Lekuona'tar Manuel'ek eta Latxaga'k aztertu dabe eta toki oneri Latxaga'k Euskalerr'i'ko Kapadozia diñotso. Toki bi oneitan aur-kitu daikez Lekaideen kobak eta astarren asko. Zelako lana egin eben ez dakigu geiegi kobetako idazkiren batzuk eta Kontzilioetan esaten diran gauzak izan ezik. Ez aiztu Saturio deuna, Armentia'ko Prudentzio gotzainaren laguna, edo Aro'ko Santelices edo Kulu-llako Donemiliane. Gure errietan badagoz beste lekai-de batzuren urratsak: Gipuzkoa'ko Araoz'en (Arantza-zu'ra bidean) Elias santu baten eleizea, Santa Engrezia edo Garazi Donea'renak, edo Santi Mamiñerenak...

Gure errietan eleiz-arduradunai "Abadeak" esaten jake, parrokiak lekaideakaz zerikusia eukelako.

Lekaideen ondorengo ta antzeko dira "Erljioso" tal-deak: Frantziskotarrak, Txomindarrak, Karmeldarrak... Gero aldakuntza aundiagoak etorri dira: Josulagunak, Salestarra, Opus Dei'koak eta abar...

Gizonezkoakaz batera dagoz emakumeak, Krisosto-mo Deunaren denporako Neskuts edo Birjinak, Diako-nisak eta groago ugaritu diran lekaimeak.

OLAZAR'TAR MANTIN'EN



## BEGOÑA (VIII): BURESTUNA IPINTEA

1.876n. urtean asi ziran barriro Begoña'ko eleizea konpontzeko lanak.

1.880n. urtean, iraillaren 8n. egunean izurrite edo kolerearen aurkako arrentza egin zanetik 25n. urtea zan, egun egokia Begoña'ko Amaren aurrean Bizkai'ko seme-alabak batzeko, ez bakarrik Begoña ta Bilbao'koak, Bizkai guztikoak eta al dan bestean Bizkaia'ren ingurueta-koak. Lenagoko jazokizunak banandu egin ebezan bizkai-tarrak. Aurreko gudak, batez be bigarrenak, samintasuna ekarri eben eta gudaren suak gorrotoa sortu eban biotzetan, orain fedearen bizitasunak eta Maria'ganako maitasunak bakean eta maitasunean batuko ebezan etorri leite-keazenak.

Olako peregrinatze bat egiteko pozak laster alkartu ebazan biotzak. Lenengo Eleizbarrutiko Gotzaiñak onartu eban burubide au eta Bilbao'ko jaurleriak eta gudalburuak be ontzat emon eben. Geiago barik asi ziran gerta-kuntza-lanak. Zabalkundea bizi-bizi zabaldu zan eta Begoña'ko Amari egingo jakon omenaldia aunditsua izango zata ikusten zan.

Beti lez, ba-egoan baten bat asmakizun eder onegaz batera ez etorrena. Baltzak edo liberalak egozan aurka eta onein izenean, Bilbao'ko izparringi bat aurrelari zala, "Izurac bat" izparringia. Auxe izan zan aurka agertu zan izparringi bakarra. Beste guztiak alde egozan. "Izurac bat" orretan Jainkoaren aurkako ekintza guztiak aurkitzen eben tokia eta egun areitan, maiatzaren 3n. egunean, Gasteiz'ko Gotzaiñak kondenatu eben agerbide au Eleizearen eta Aita Santua'ren aurka ekiten ebalako eta okerreko fedearen alde agertzen zalako. Orregaitik egoan Begoña'ra egiteko bide-aldi onen aurka.

Erri-agintariak aurka agertu daitezcan be. alkartzee aundi ori Karlos'tarren batzarra zala esan eben. Ortik etorri zan erri-agintariak eratzailleen aurka agertzea.

"Izurac bat" orrek ez eban lortu alkartzee aundi ori galaraztea, baiña bai batzarkideak Bilbao'n ibillaldia egitea. Olako agindua emon eutson Bilbao'ko Alkateak bertako abadeen buru zanari. Eta Gobernatzaillak auxe esan eban zeatzago: "Agintaritzak ez dau debekatuko, eta ezin leike debekatu, erromes etorriak, asko izan arren be, curen bidean jarraitzea, esaterako ikusgai edo espektakulo batetik datozenai debekatzen ez jaken lez".

Erromes-batzordeak, ba, erromes-aldia ospatzea erabagi eban: Begoña'ko lurralde-barruan izango zan eta lenengo ekintza iraillaren 5n. egunean.

Egun orretako arratsaldean etorri ziran erromesak Durango. Gernika eta Lekeitio-aldetik. Urrengo egunean batu jakezan Karrantza, Orduña, Mundaka, Portugalete eta beste errialde batzutakoak. Illearen 7n.'ean etorri ziran Markina, Mungia, Zeberio. Balmaseda ta Areatza-Villaro-aldekoak. 8n. egunean amaitu zan erromes-aldi ori. Meza asko esan ziran eleizan eta kanpoan, itzaldi

asko euskeraz eta erderaz eta 20 ikurdi geratu ziran gomutaki lez.

Iraillaren 12n. egunean agertu zan Erromes-aldiaren aldizkari nagusia azkenengoz eta Zuzendari zan Labayru'k auxe idatzi eban:

"Zorionez amaitu da erromes-aldia. Irurogei milla erromes inguru etorri dira Jaungoikoaren Ama omendu ta goastera eta inguruan ebiltzan fede-bakoen zurrumuruak ez dabe makaldu erlejiño-indarra.

Erromes-aldia Bilbao'ra etortea debekatu eben, baiña Bilbao'n asko eta asko izan dira erlejiño-jaiak aukeratu dabenak eta orrelan agertu dabe Bizkai'ko uriburuak badaukala fede ori eta fedearen barru-min ori beste Bizkai'tarrak eta inguruko euskaldunak dauken tez".

Erromes-ekintza onek eleizea ber-eregiteko lanai indar barria emon eutsoen eta 1.881n. urtean amaitu zan torrekko lana, apur bat aldatuta. 1.884n. urtearen asieran, errian dirua batuta, Cavaille-Col organu barria ipiñi zan bere lekuan.

Gizaldiaren azkenengo urteetan alegiña torre barri bat egiteko izan zan. Lengo torrea izango zan Andra Maria'ri burestuna ipinteko orduan aurrean egoana. 1.900n. urteko iraillan ipiñi jakon burestuna Andra Maria'ri eta ille bi geroago Gotzaiñak baimena emon eban tore ori botateko.

1.900n. urtea zan Bilbao uri biurtu zanetik seigarren eun-urtea eta orixe berori Andra Maria'ri koroia ezarteko urte aukeratua.

Lenengo Aita Santuaren baimena lortu zan. Gero Agirre'tar Maria'k emon eban burestuna, koroia, bere bitxiakaz eginda, Umearen burestuna eta makillatxua, erritarren artean batutako diruagaz ordaindu ziran.

Iraillaren 1'etik 8n. egunera, 1.880'n. urtean egin zan lez, Bizkai guztitik etorri ziran eromesak Begoña'ra. Eta eldu zan bureskunde-eguna. Uri guztian kanpai-otsak entzun ziran. begirategiak eta leioak apaindu ziran, bandera eta arkuak poza agertu eben. Goizeko 9'retan etorri zan Gasteiz'ko Gotzain eta bureskunderako Aita Santua'ren ordezkari zan Fernandez Pierola'tar Ramon. Lenengo Gotzain-mezea egin eban beste amar Gotzain eta erri-agintarien aurrean.

Mezea amaitu zanean Begoña'ko Amaren irudia ateaurreko oltza batera atera zan eta an pozez beterik egoan jenteez aundi baten aurrean Gotzaiñak irudi beneragarriari koroia, burestuna, ipiñi eutson eta koroia ipiñi-ala berak oneik esan ebazan: "Esku oneik lurrean burestun au ipinten dautzuen lez, irabazi dagigula zeruan zure eskuak gu koroatzea".

*Oarra:* Gaur eleizearen ormetan ikusten diran illun-uneak guda negargarriak sortutako sueteen ondoren itunak dira.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

# 2.000'GARREN URTEKO EKINTZAK

Gabon Jaun-Andreok:

Oiko gure Batzar Nagusian oi dogun tez, igazko ekin-tzak azaltzean, jazokizun negargarri batek jota aurkitzen gara: Bilbao Arruza'tar Jon Erramun'en eriotzea.

Bera izan da urte askotan Euskerazaleak'en batzordeko langille neka-eziña, igarotako 25 azken urteotan gure erakundeari laguntza baliotsua emon dautsana, eta gaur bera joanda, gure idaztegian bere irudi maitekorra ikusten ez dogunean, antz emoten dausku altxor andi bat galdu dogula.

Edozelan be, dagoan lekutik badirudi aren laguntza artzen jarraitzen dogula, ordutik ona, langille bi gure batzordera etorri jakuzalako lan egiteko asmotan: Emilio Ormaetxea eta Paul Atutxa.

Zailla bada be Jon Erramun'en utsa zelan edo alan beteko dabe, euskerearen onerako bear doguzan ekintzak aurrera eroateko lagunduko dauskuena.

## EUSKAL IKASTAROA

Igazko Urrilla'n, oi dan lez euskeraren ikastaroa asi zan, eta ikasleen kopurua betikoa jarraitu da. Izan be, arlo onek, aurrera jarraitzeko adoretzen dauan gure eragintza andia da, eta gure erakunde onen sortzailleen jomuga beteten dauna.

## EUSKAL ASTEA

Urtero ospatzen dogun lez, aurten be Eskolapioen Ikastetxean Azilla'ren azkenean izan genduan. Gaiak benetan jakingarriak izan ziran, eta ona emen, ospakizun orren zeatzak:

Azilla'ren 27'an: "Bertsolaritza" - Legarreta'tar Asier'ek

Azilla'ren 28'an: "Bidetik amesetan" olerki txorta - Zubiri'tar Iñaki'k

Azilla'ren 29'an: "Trueba'tar Antonio Idazlea" - Olazar'tar Martiñ'ek

Azilla'ren 30'an: "Bidalgo Ikurrak Euskeraz" - Atutxa'tar Paul'ek

Gabonilla'ren 1 'goan: "Burdin Olak" - Olazar'tar Martiñ'ek

Itzaldiak oso jakingarriak izan ziran, baiña zoritxarrez, lengo urteetan baiña entzule gitxiago izan gendun. Gure ustez, bearreko zabalkundea ez gendualako egin, izan zan urrean. Urrengoan aleginduko gara entzule geiago ekarteko.

## IPUIN SARIKETA

Euskerearen garapenerako oso lagungarria dan ekintza onetara igaz be dei egin gendun. Oraindiño, maikoek ez

dabe epaikuntzarik egin, baiña laster burutuko dabe, eta urrengoko "Zer" aldizkarian zeaztasunak argitaratuko doguz, baita irabazleen lanak agertuko be.

## EGUTEGIA

Betiko oitureari jarraituz aurtengo egutegia atondo gendun, Bizkai Bilbao Kutzaren diru laguntzaz. Ale bat gura izatekotan eskatu daiteke BBK'ko idaztegiatan. Eguneroko orritxua gure etxeetan irakurtea oso lagungarria da gure euskerea zabaltzeko, eta norberaren ezagueria pixka bat egunero goratzeko.

## "ZER" ALDIZKARIA

Bizkaierazko munduagaz lotzen gaituan aldizkari bakar au argitaratzen jarraitu dogu.

Ogei urte baiña geiago izango dira etenbarik argitaratu dogula aldizkari au, Olazar'tar Martiñ'en zuzendaritzapean, eta bizkaiereak aztuta izaten jarraitzen dauanean, atsegin andia da guretzat illero-illero bizkaierazko aldizkari bat irakurri aal izatea.

Egiari zor dautsagun begiruneaz esan bear dogu, Bizkai'ko Foru Aldundiaren Kultur Saillatik, laguntza geiago artzen asi gareala, eta Euskera eragiteko Zuzendari Nagusia da Gotzon Lobera'ri esker, aintzakotzat artuak izaten asi gara, eta badirudi, zorionez, orain arteko diruaren zailtasuna arintzen asi jakula.

Eta beti lez esango dautsuet, zuen idaz-lanak bialtzen jarraitu dagizuela, danen aalegiñak bearrekoak diralako gure aldizkariari ezinbesteko janaria emoteko.

## LAGUNTZAK

Diru-laguntza bearrekoa da gure erakundeari arnasa emoteko, eta gure ekintzak garatzeko gai izateko, eta betiko ekintzak eta barriak burutzeko, bearrekoak dira zuen dirulaguntza ta aalegiñak.

Alde onetatik, bijoakez gure eskerrik beroenak, Bizkai'ko Aldundiaren Kultur saillari Bilbao'ko udalari, eta Bilbao Bizkaia Aurrezki Kutxari, orain arte artutako l aguntzagaitik.

Bailía oroz gain zuen urteko saria bearrekoa ta adorgarria da aurrera ekiteko eta bideko neskeak arintzeko. Ez aztu, beraz, BBKan dogun gure kontuari zuen urteko saria bialtzea.

ZUBIRI'TAR IÑAKI  
LENDAKARIAK

# NAFARRO'AN ERRIBERA'KO GIZONAK

Laxaga eta ni, Lizarra'n dan bere etxera joaten gara astero, leenengo, iru egun lasaitasunez iraun dagiguzan, baiña heti agertzen jaku zeozer bera zuurtasun guztiaz dabillelako Euskalerrian barrien billa.

Oraingoan esan eustan Ondarribi'ra joan bear gendula. Nik baietza emon neutson eta arrastiko 5'etan an egon giñan, Sainz eta Pezonaga'tar Xabier'en etxe -aurrean. Berak zabaldu eban atea eta gora joateko dei-egin euskun.

Ikuste onen arrazoia, Xabier'ek liburu bat argitaratu ebalako zan: "El Euskera en la Ribera de Nabarra", eta Laxaga'k gure ebalako bera ezagutu, idaz-lan bat egiteko Diario de Nabarran argitzeko eta nik "ZER"en. Garrantzi aundikoa dalako argitu eben liburu ori, eta gaiñera Nafarroa'n Korella'ko seme batek argitaratua da.

Liburu au, izkuntzaz mintzatzen da, eta or agertzen dauz izkuntzaren astarnak geografian eta Euskal erroak Erri beran.

Laxaga, gure aurkezpena egin ondoren, itaunka asi zan:

Noz jalo ziñan?

– 1958'an Korella'ko erritxoan.

Beti bizi zara Korella'n?

– Bai!, Ondarribin bizi izan garen azkeneko iru urte auek izan ezik.

Nolako eta nun egin zenduzan ikasketak?

– Xabier'eko Jesuitetan amar urtekin asita batxilerra egin nuen, eta aldizkarien berrikari Bartzelona'n.

Nun egiten dozu lana?

– Renfen.

Zenbat seme/alaba daukazuz?

– Mutil eta nezka bat.

♦ Nun aurkeztu zendun len-da-bizi zure liburua?

– Iruña'n dagon Saldiko-Maldiko elkarteetan.

Nola artu zinduten?

Nire ustez oso ondo, jende ezberdin zar eta gazte asko egon zalako.

Nolako jendea zan azaldu zeinskigu?

– Bai!, eta pozik gaiñera, jende asko etorri zalako Nafarroa'ko Erriberatik. Batzuk Euskal arduradunak ziran, beste batzuk erriko emakume/gizon onuradunak (interesados), jakin-nai aundia sortu zalako Korella'ko errian. Jende zar eta gazte asko egon ziran liburuaren aurkezpenean.

Aldizkarian berri-emaile edo kazetaririk bai?

– Ball, eta oso pozik nago gaiñera Nafarroa'ko aldizkari guztietan on-artua izan dalako.

♦ Eta zure errian?

– On-artua izan da nire errian (Korella), eta denborarekin uste dot izketaldi baten bat emon bear dotela.

Zerk urduritu zaitu liburu au egiteko?

– Leenengo jakin-miña, eta gero erri-miña. Azken baten..., gure jakintzaren (kultura) maitasunak.

Nekazarien seme-gazte izan nintzanean, lenengo arri-

tu nintzalako gogoan Euskerazko itzaren bitartez, eta ostean aitu nebalako nire izkuntza beste bat zala, Euskera zata! Jakin-nai orrek, neure nortasuna azkortu (desarrollar) eustan.

Zer esaten dabe Erribera'ko jendeak Sanz lendakariak Euskal arloan pentsatzen dunagaitik?

– Erriko jendea asi dalako konturatzen Nafarroa'ren guraso-ondokoa (patrimonio) Euskera dala, uste dot elburu orretan ez doazela Sanz'en atzetik. Orregaitik neu ere zuurtasun aundiekin ibili naz arlo onetan, berezitasun guztiaz, lerderialdi (presunción) barik eta erri-yaurgoan sartu gabe.

Zein izanda zure ikerketaren araua gaztetatik'?

– Niretzat bi izan dira arauak: alde batetik, nekazari-tzako lanean ibiltzen giñanean. Euskerazko itzak agertzen ziranean ostean ikertuz: eta bigarrena toki izenakaz arri-tuta geratzen nintzala, galdera aundiekin itxiten nindualako.

Beste arau bat ere euki neban: Nafarroan Euskeraz argitaratuten zan guztiari zuurtasun guztiaz begiratu.

Zer on-artuko zenuke argitaratu dozun liburuari buruz esaten diran gauza guztietatik?

– Lan aundi bat dala, opaldiaz (dedicación) eta zaletasun guztiaz egiña; baiña danez gain egiaz landuta dagoa-la iñungo arrokeri eta asmakuntza barik.

♦ Luengo liburua nozko'?

– Orretarako lan asko egin bear dot, gure aurreko belau-aldiakaz eta guregan egon dan ebagi aundiori beteteko; adibidez: Muzkaria'ko (Tudela) Pelairea'tar Alberto olerkariak, Fitero'n urte askotan bizi zanak, nolako sendimenduzko biotz-ikutua emoten eutson beren olerkiari.

Gauza asko dagoz. Iribarren'ek ere esaten dau: Muzkaria'koak XVIII'garren gizaldiko jaietan "Karrika-dantza, Nezka-dantza, pelotan", jantzatu eta jokatu egiten ebela. Nafarroaren Erriberako jakintzatik gauza asko galdu dira eta Nafarroa'ko jakintza guztiz Euskalduna dal Zer dozu gogoan Nafarroa'ren etorkizunerako?

– Gure oñarriekin arduratu egin bear garela; danez gain gure izaera eta Nortasuna diralako zalantzan ipinten doguzenak. Euskera barik ez dagoelako Nafar Nortasunik.

Zure Nortasunaren eginkideari buruz: zein da zure eginkizun izkutua?

– Neuri gustatuko jatan naia zan, Euskerazko Elertian geiago emotea, Nafar guztiari eskaintzeko eta azken baten Euskalerrira'ri.

Nola zeunke ikusi nai Nafarroa'ko Erribera?

– Biotz-biotzez gura neuke Erribera jakitun ikustea, baiña arazo orretatik urteteko utsun asko daukaguz bete barik Nortasunaren eza agirian dala, eta Nortasunaren utsuna Euskera ber-bera da.

Zure asmoa, Erriberara itzultzea da?

- Neure burutapena ori da, asken baten nire naia Euskerea irakastea dalako, neure errian eta inguruko errietatik.

Gauza asko ikusi dodaz Nafarroan zear, eta askok arri-turik itxi naute, baiña sakontzen noan bitartez, orain arte arri-turak gauzak oso labur edo txiki geratzen dira agertzen jatazen egoera barriekin. Gizon emakume ezkonduak, bai ere curen senitartekoak eta lagunak elkarte polit bat osotzen dabenak, daukien abertzaletasunezko indar aundiekin, eten bako lanean dabiltzanak nai ikastolan, nai erriko zinegotziak lortzeko Euskal Abertzaletasuna bizkortu daiten, leenengo eskema edo egitarau bat agertzen danean, nai eurek sortzailleak izan..., bazartu egiten dabez ezeren lotsa barik. Gauza illunak ikusten ari gara gure anean, bakotxa beren denboran argira emango doguzanak.

Eta emen nire aitu ezinezko itaun bat: Korella'ko mutil au "Sainz eta Pezonaga'tar Xabier" RENFEN lan egiten?

◆ Norentzat lan egiten ari gara: guretzat, Euskalerrientzat ala alderdientzat! "ZEIN DA ELBURUA"?

— Euskalerriak gaur inoiz baiño geiago bear dau Abertzaletasunak ELBURUARI begira lan egitea eten-bako ardurarekin, ezer-en arrokeri barik Euskadi argitu daiten, Munduko erri guztiak ikusi dagien emen erri bat dagoala, inoren menpean egotea merezi ez dauana, beren Nortasunagaitik ainbeste nekaldi jasotzen dabillena.

ATUTXA'TAR PAUL  
ZORNOTZAN 2.001'AN URTARRILLA'KO  
24'AN

### LAUAXETA, BASILIO PUJANA TA PAULIN

Nik argitaratutako "Mungia ta Mungiarrek" liburua irakurri ondoren, Basilio Pujana'ren eskutitza artu dot eta gauzak edestirako argi geratu daitezkan, emen argitaratzen dot eskutitz ori itzez itz.

"On Martin Olazar. Zuk Mungia ta Mungitarrai idatzitako liburutxu orretan, Mungia ta Mungiarrentzat dan lez, ondo egin dozu, Mungia'ko semeak bakarrik aitatutea, eta orretzaz ez dago konkerik, baiña Esteban Urkiaga "Lauaxeta"ren gorpuzkiñak Gasteiz'tik Mungi'ko illobi batera ekarri ziran egunean, an izan nintzan eta illobiaren ondoan neuk kantatu nebazan bertso bi eta bietan bat beintzat au izan zan (1). Ni an izan nintzan orduan konturatu nintzan programa bi izango zirala. bata Eusko Gudarostekoa eta bestea Mungitarrena, ze Mungitarrek ez ekien ni be kantatzeko nintzanik eta an egon ziran jaun batzuk esan eusten lenengo nik kantatzeko, eurretari bat abadea zan, nik aldi aretan ez neban ezagutzen, Paulin jauna, ta "Lauaxeta"ren anaia be bai. Ni joan nintzan Eusko Gudarosteko batzun esanetatik eta zoriona ta eskerrak emon eustezkan kantau nebalako. Eusko Gudarostekoen anean izan ziran Alkain jauna, Donosti'ko alkatea ta Aizarna Gipuzkoa'ko Foru-Aldundiko Nagusia eta esan custen, zorionak emenez: "Ongi, Pujana. egiak esan eta inor iraindu barik".

Gero frontoian izan zan jaia. Lauaxeta'ren anaia be eskertu nindun, nik ez neban ezagutzen baiña. Frontoian egon zan ipiñita kartel aundi bat onela idatzita, Lauaxeta'ren argazki aundi bategaz:

"ME FUSILAN POR **HABER** AMADO A ESTE **PUEBLO** DESGRACIADO"

- (1) **Fusilatuk izan ziranen**  
**Benetan ordu larria,**  
**Zintzo ziranak sentitu eben**  
**Justizien egarria,**  
**Ta asetzeko bala-zuloko**  
**Odolezko iturria,**  
**Odol sagraua isuri zana**  
**Baiña ba-dator barria,**  
**Erriko gizon danak ilda be**  
**Ez dabe ligo Erria.**

Gauzak curen lekuan geratu daitezkan, orra or ba liburuari gaiñeritzen dautsadan, geigarri au.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

# JON ETA MIREN

## (1.º SARIA)

Donostia'n lekutzen dan ipuina degu au. Udazkeneko egoaizeak girotutako egun epel argi batek lilluragarriago bihurtzen du Kantauri'ko itxasoaren magalak artzen duen iriburu eder ori. Olatu enbatak, Santa Klara ugartearen erauntsi antzean. Eguzkia Igeldo mendi gaiñetik herantz eguneroko bidean, itxasoratzen. Eta egun argia delarik, gutxi barru, kanta zaarrak dioena ikusi aal izango degu: "Illunabarra. Eguzkia asten da, jaitxilen, jaitxitzen, jaitxitzen... Dizdizera ederra zauika gutxitzen, diamantezko printzak zaizkanean galtzen, urrezko bola baten itxura du artzen, eta geldigeldik da itxasora sartzen" Eta Urgull mendi gaiñetik, Jesus' en irudia, beso zabalik, zaindari...

Iribarneko, Boulevard zumardiaren barrena, Kontxa aldera, ikusmiran, gazte bat dioa, Ankak ariñak ditu; baiña zerbaiteren sentipenak eraginda, itxuraz, biotza astunduta darama. Bere barne muiñetan, oztoporen bat dauka gure gazteak. Dirudienez aurrean daukana ikusi gabe dioa. Barne irudiaz beste nonbaitera begira; eta Boulevard ibilbidearen ederra, ez du ikusten.

Gazte ori Jon da.

Eta Askatasunaren Etorbidetik, neska gazte bat, Miren. Au ere, tipi-tapa, Kontxa aldera dendetako erakustokietara tarteka begira. Onak ere ez dirudi, erakustokien barruan dagoena ikusten duenik. Bere burua or beste nonbait dabil. Betillun eta goibel aurkitzen da gure neskatilla ere. Eta geldiro, geldiro... badoa aurrera.

Kontxa'n, ondartzaren magalean muturra sarturik, itxaso zabala, Santa Klara ugarteari danba eta danba. Gaur ez du barealdiaren eguna. Egun ori, ordea, bi biotz, minduen barealdia sortuko duena izango da.

Kontxa'ra iritxi dira bi gazteak. Eta alako batean Santa Klara aldera begira daudela, burua gira eta, non topo egiten duten beren begiek! Eta bapatean, pozenen pozez, bi kopetillun alai eta argi bihurtu dira. Jon eta Miren'en gaztetasunez betetako begi ameslari edereiri diztira darie une artantxe...

Burutapenak ere lurreratu zaizkie, gure bi gazteei. Eta badoaz laisterrean, biotz alai, elkarrengana.

Biak elkarrekin Ikastetxe Nagusian ibilliak ziren. Neska, Euskal Filologia ikasten, eta mutilla Ekonomilari.

– "¡Hola Jose Luis! ¿Qué tal estás?"

– Arratsalde on, Maria, ondo esan bearko. Eta zu nola zaude?

– Zuk leen. Jose Luis, naiz eta Gazteluarrietagoitia, abizen ponpoxo ori izan, euskeraz ez zenekien.

– Orrela izaten dira gertakariak. Zu, berriz, Maria Majadahonda izan, eta euskaldun jator, garbi-garbia azaldu ziñen Ikastetxe Nagusian. Gero esango dizut nerekihoa. Aurrena, ordea, emaidazu zure berri. Baiña leendabizi argitu dezaizudan, leen Jose Luis nintzena, orain Jon izenez ezagutzen nautela.

Maria ¡Ikastetxe Nagusikoak burututa geroztikakotik, zer berri dakarkidazu? Eta jatorriz kanpotarra izanik, nola zera ain euskalduna? Orixe da benetan arritu ninduen elkar ezagutu genuenean.

Asteko esango dizut, orain Miren izena, gogokoagoa dedala, eta. Euskal Filologia bukatuta, tesi doktorala egiten ari naiz, Orixe'ri buruz.

– Nola izaten diren gauzak Miren! Ni goierritarra izan eta Goierriin erdera utsa ikasi nuen. Eta zu –lurralde onetara umetan ekarri bazintuzten ere– Gaztelerrria'n jaio, ta Euskalerrri'ko izkuntzaz ederki asko jabetu ziñen.

– Bai, Jon. Eta orrela gertatu zen. Ni bi urteko nintzela, gura-soek.

Gaztelerrri'tik, Euskalerrri'ra etortzea erabaki zuten. Gipuzkoa'ko Tolosa ingurura. An, gure jaioterrian, nere etorkizunari begira ez

zuten irtenbide egokirik ikusten; lanikeza nagusiturik bait zegoen. Ura egoera tristea, nere aurrekoek izan zutena! Ori dela eta, sorterrria utzi, eta esan bezela, Gipuzkoa'ra etorri ziren. Aita bereala fabrika aundira sartu zen, lanera. Eta arratsaldeetan lanetik irten, eta lau ordu sartzen zituen baserri batean morroi lanetan. Eta orrela, euskera ondo ikasi zuen. Ondo ikasi ere!

Ama, berriz, jatetxe batean asi zen bearrean. On izango zukeela bezeroekin euskeraz itz egitea, eta gau eskolarajoaten zen. Eta orrela aurrerantzean Euskalerrria'n biziko ziranez gero, bertakotu egin ziren, biotz biotzez.

Umeak ere, nik, etorkizunera begira euskera ondo ikastea obe izango zukeela, eta umetandik euskera besterik ez nun entzun gure etxean. Gero ikastolan asi nintzen eta or dezu, naiz eta ni Gaztelerrria'n jaioa izan, nire euskera ain ondo jakitearen gako.

– Eta zuk, Jon, goierritarra izanik, nola ez zenuen umetan euskerak ikasi?

– Bada, Miren, baserrian mundura nintzen. Eta garai aietan, gure etxean auxe besterik ez nuen entzuten:

– "Euskera onek, etxetik atera eta, ez duezertarako balio –esaten zuten aiton-amonek–. Irakas ezaiozue ume orri erdera, gu ibilli geran bezain errukarri, gaur edo biar aurki ez dezan bere burua".

– Aitona eta amona, baserrian geratu ziren, Baiña, ni umetxo nintzela, gurasoak, kalera joan ziren bizitzera. Eta gaiñera arrez gero, biak, aita eta ama gogor ekin zioten erdera erabiltzeari, beren burua apaiñagoa ikusten zutelako edo... Eta or dezu, Miren, Goierri'ko Gazteluarrietagoitia'tar bat izan, eta elkar ezagutu genuenean nik euskera ez jakitearen gako.

Ikastetxe Nagusikoak burututa, zuk eta nik, bakoitzak nork bere bidea artu genuen.

Eta ni London'era joan nintzen, Ekonomilari naizen aldetik, ango ola garrantzitsu hatean ikasiaren ariketak egitera. ta bide batez ingelera sakontzea. Orain urte hete Euskalerrri'ra itzuli nintzen. Eta beste giro bat aurkitu nuen gure Gipuzkoa'n, euskeraren aldekoa. Orrek, barruan daramadan euskal jatorriaren sena piztu arazi zidan. Eta gogobetez, burubelari, euskera ikasteari ekin nion. Etxean oraingoan laguntza ederra izan nuen. Umetan entzundakoa ere ortxe neukan neure baitan. Eta, era orretan urte batean euskeraz dextente ikasi det. Noski, Miren, ez det zurea bezain apaiña eta landua, baiña emendik aurrera biok euskera itz egiteko gauza izango nauzu.

Oriek esan, eta elkarri begira mutututa daud.

Ikastetxe Nagusitik alde egin zutenean, bakoitzak bestearenganako harrian zuen erakargarritasuna, ixil-gordean berekin eramana zuen. Eta ori zuten gaur, gure bi gazteek, ain zuzen, beren gogame-naren zergatia.

– Aizu Mirentxu...!

– Zer Jon...?

– Zerbait esango nizuke... Mirentxu.

– Esan, bada, Jon. Bost urte luzeetan Ikastetxe Nagusian batera ibilli eta, ainbeste uste ona izan bearko genuke.

Berriz ere mutututa daude. Eta pixka hatean orrela egonik, biak batera ekin eta ondoren besoak luzatu, eskuak estu-estu egin, eta itzik gabe orrelaxe aitortu dio bakoitzak besteari bere barne mintzoaren sentipena. Geno besotik elkarri eldu eta badoaz, geldiro-geldiro Kontxa'n barrena, kai aldera.

Kai alde orretatik, Koru'ko Andra Maria'ren Basilikako kanpai otsa. Jon eta Miren'ek beren barruan ezkontzaren itxaropena; eta laifoen giran aingerutxo batzuen irudia... Ondorengoan ametxa.

## GERNIKA'KO BATZAR-ETXEA (VI): ZUZENDARITZA

Batzar-Etxearen Zuzendaritza edo Lendakaritza Bizkai'ko Aldun Nagusiarentzat da eta ez beste inorenentzat. Or artzen dira Agintariak be. Goi-agiritokiari dautsola dago eta au egin ebenean agiritegiaren gela bat zan, ate-aurre antzera zugatza dagoan lekutik sartu ezker.

Barruan balio aundiko erti-lanak dagoz, onein artean Franco'ren margazki bat Angel Larroke margolariak 1973n. urtean egiña. Beste margazki eder bat Lekuona'tar Antonio M.<sup>a</sup>rena da. 1.876n. urtean Ondarroa'n margotua. 1.874n. urtean, orrillaren 2n. egunean Bizkai'ko lurraldeen batzarrean VII Karlos erregegaiak Durango'n egin eban alkartzea da. Ederra baita, Berbizkundera adierazten dauan margazki bat XVI gizaldikoa eta egillenen bakoarena. Emen dago baita "Fernando Katolikua-ren esku-muna egiteá". Mendieta ospetsuaren laukia eta aurrerago Urrutia'tar Jose Ignazio margolariak 1.773n. urtean egindakoa txikiago biurtzen dauana.

Trueba'tar Antonio'ren burdin-orizko irudi bat be badago. Trueba idazle entzutetsua da eta joan dan gizardian Batzar-Etxe onetako edeslaria ta agirizaiña izan zan.

Gernika uri lez irasi zanetik VI eun-urtea zala-ta 1.966n. urtean zabaldu ziran domiñak be ikusi daitekez.

Lauki batek Gernika'ko Zugatzaren ebar bat dauko. Au beste abar aundiago batetik II Isabel erregiñeak artu eban Bermeo'n 1.865n. urteko dagonillaren 26n. egunean eta erregiñak berak emon eutson Aldun Nagusi zan Urki-zu'tar Jose Nizeto'ri.

1.917n. urtean Bizkai'rako Loiola'ko Iñaki Deunaren jaia ezarteko Aita Santuak bialdu eban idazkia be or dago.

Iparragirre'tar Jose Maria'ren eskutitz bat be bai, Trueba'tar Antonio'ri idatzia eta ondoan Trueba'k berak 1.881n. urtean idatzitako oarrak. Agiri au Batzar Etxerako emon eban Fernando M.<sup>a</sup> Castiella'k 1.964n. urtean, kanpo-errietarako ministro zala eta urte aretan Etxe onetan espāñatasunaren jala ospatzen zalako.

1.860n. urtean Marruekos'ko Aginterriaren aurka izandako gudan Borondatez Bizkai'tik joan ziranen Tertzioak ekarri eban bandera'ko Bizkaia'ren ikurdia be or daukagu.

Azkenez, Bizkai'ko Lenengo Korrexidorea izan zan Gonzalo Moro'ren alabea zan Maria Lopez Moro'k Batzar-Etxe onetako zin-eleizearen babesletzari buruz 1.454n. urtean egindako agiri irakurgarri bat.

Amaitzeko, zer esan Sesmero Jaunak 1.975n. urtean egin eban idazianean agertzen diran jakingarri onei buruz?

Gauza bat baiño ez. Gaur gauzak orrelan dagozan ez dakit, baiña edestia ezin ukatu: Gure areriorik aundienerariokoak ortxe agiri dira omenduta. Gure Lege Zarra bere

erara ulertzen eban korrexikdorea. lege zarrak kentzea ontzat emon eban Isabel erregiñearen aritz-abarra, Franco gure zapaltzaille nagusiaren irudia eta zelako gauzak agertzen diran Batzar Etxe onetan! Gure edestia, len eta orain, negargarria da gure euskaltasuna kentzeko gizardien joanean egin diran alegiñai begiratu ezker. Ertibalioa or dago, agiriak dauken edesti balioa be bai baiña negargarria or agertzen dana, Castiella'k emondako agiria barruan dala.

Olantxe dira gauzak. baiña izanak izan. gure erria bizi da eta iñoz baiño biziago dago. Gernika'ko Araudiak ekarri dauan askatasuna ez da ain txarra izan, eskubide asko eskuratu doguz, baiña erriak geiago eskatzen dau. Jabetasuna nai dau. Beste euskaldunakaz lenagotik izan dogun alkartasunerako iñoz izan ez dan Euskaljerri Osoaren aginte bakarra ikusi gura dau. Or dago gaurko gure burruka. Or ikusten dogu betiko arerioak zelako alegiñak egi-ten dabezan elburu ori ez lortzeko. Larri-aldi aundi baten gagoz. Zelan amaituko ete da gataska au. Txarreanean be ez daigun gogoa galdu: Erri bat iltea gauza gaitxa da eta Zugatz zarraren antzera ilten ba'da be, landara barriak bizi agertzen dira: Lagundu dagoigun Euskaljerri maiteari, lagundu dagoigun gure Bizkaia maiteari.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

IRU GAUZA DAGOZ  
ESKUTATU -EZIÑAK:

MAITASUNA,  
KEEA

ETA GANBELU-GAIÑEAN DOAN  
GIZONA

arabiarren atsotitza

## BAKIO'KO BARRIAK

### SAKELEKO TELEFONOAK EZ DIRA OSASUNGARRIAK

Sakeleko telefonoek geiagotu egiten dabe garuneko min-bizia izateko arriskua. Alan jakin eragin dau Suediako Karolinska Institutuak, gaixo ori euken 209 lagun aztertu eta gero.

Karolinska Institutuak ikertzen jarraituko dau: beste 1.500 gaixo aztertu eta urtebete barru azalduko daz ondo-riok.

Edozelan be, Lennart Hardell doktoreak esan dau sake-lako telefonoak aalik eta gitxien erabili bear dirala, mi-krouinak ez diralako bape osasungarriak.

### ETXEETAN GAS PROPANOA IPINTEKO AUKEREA

Ikusiko zenduen tez, daborduko gas propanoaren sarea ipinteko bearrei oratu jake.

Alan da ze, emendik gitxira bakiotarrok aukera ezin obea eukiko dogu gasak emoten dauan berotasunaz gozatzeko.

Alan, konexinoaren prezioa, guztira, 180.000 pezetakoa da eta amabi kuotatan ordaindu aal izango da, ilero 15.000 pezetako zenbatekoa sartuz.

### ERREKA NAGUSIA ZABALTZEKO BEARRAK MARTXAN

Urriaren azken astean ekin jaken Erreka Nagusiko ubidea zabaltzeko bearrei.

Igarriko zenduen lez, elburua uriolak izateko arriskua gitxitzea da. Alan, errekearen ubidea Ibaiondoko zubitik Zubibaltzagino zabalduko da metro terdi inguru.

Bearrek urtebete irautea aurreikusita dago, baina bearrok sano arazotsu diran ezkerro, izan leiteke epe ori luzatu bear izatea.

### MERKATARITZA ETA TURISMOA

Urriaren 10ean udaletxeko batzar aretoan erriko merkatariei aurkeztu jaken merkataritza eta turismoa bizkortzeko plana.

Egitasmo onen elbururik nagusiena merkataritza eta turismorako baldintza egokiak sortzean datza, beti be arlo bi orreen garapena oztopatzen dauan urtarokotasuna goitituz.

Izan be, Bakiok urte osoan gune turistiko garrantzitsu biurtzeko bear beste indar eta baliabide euki badaukaz.

### IPARRALDE-EGOALDE SURF BILTZARRA

Irailaren 23 eta 24an Iparralde-Egoalde II. Surf Biltzarra egin zan gure aretzean.

Emendik aurrera, urtero -urtero eratuko da ekitaldi ori. Aurtengo onetan, mugaz alde bietako surflaririk onenak batu ziran.

Guztira 88 kirolarik artu eben esku (Iparraldeko 44 eta Egoaldeko beste orrenbeste) eta era orretara Euskalerriko txapeldunak aukeratu ebezan kategoria guztietan.

Txapeldunak, bada, ondokoak izan ziran: Surf Open

kategorian Kepa Acero, andrazkoenean Miriam Imatz, 16 urterik beerako Surf Open-ean Thomas Portet, Body Open-ean Lander Irazabalbeiti, Longboard0ean Lucas Levezac eta 18 urterik beerako Body Open-ean be Lander Irazabalbeiti.

Guztiagaz be, ekitaldiaren erakuntzeagaz arduratu dan BST-ak esan deusku Euskalerriko Surf Biltzarra ez dala surf leiaketa utsa izan eta azken elburua Euskalerriko surflarien arteko artuemonak sendotzea izaten dala.

Ganera, Bakion egindako bigarren ekitaldi onetan Euskalerriko Surf Federazioari omenaldi txikitxua egin jakon eta, bide batez, euskal surf selekzinoak nazinoarteko txapelketetan esku artzeko eskubidea aldarrikatu zan itsas ibiltokian zear egindako kalerik kalekoaren bitartez.

### MAATSA BATZEA

Gure txakolin egileek urriaren leenengo asteetan amaitu eben maatsa batzeko bearra.

Alan, eurek aitatutakoa kontuan artuta, aurtengo uztea ez da igazkoa besteko ona izango, baina ezin lei ezelan be txar-tzat artu.

Orduan bada, 2001.ean be txakolin ezin gozoagoa txastatzeko aukerea eukiko dogu.

### MENDEBALDEKO EUSKERIA

Zemendiaren 6an asita, Mendebalde alkartearen eskutik gure euskerea eta beraren ezaugarriak obeto ezagutzeko ikastaroa martxan dago.

Ikastaroaren elburua erriko berbakerearen ganeko garrantzia azpiinarratzean datza

Izan be, euskerea batuak ainbat arlo formal eskuratu ebanetik ona, etxeko euskerea bear baino askoz geiago baztertu dogu eta, ganera, ez dogu bien arteko osogarritasuna topetan jakin.

Alan da ze, abenduaren 20an amaituko dan ikastaro onen bitartez gure berbakerearen ezaugarriak obeto ezagutu eta orreei onura andiagoa atarateko oinarriak sendotu gura izan doguz, ainbat arlotako profesionalak, batez be irakaskuntza-koek, euren bear eremuan erabili daiezan.

### NEKAZARITZAKO IKASTAROAK

Zemendiaren 13tik 17ra bitartean barazki kontserbaren inguruko ikastaroa egin da Bakion.

Eskuartzaileen kopurua andia izan da, 31 bakiotar animatu dira -eta ikastaro onetan esku artzen.

Jorrratutako gaiak ondokoak izan dira: kontserbak eta mermeladak egiten ikasteko teknikak eta praktikak, lantoki txiki bat sortzeko eman bearreko pausoak eta Lenitz-Gatzagako enpresa batera egindako bisitea.

Irakasle guztiak enpresa pribatueto bargin jakitunak izan dira eta ikastaroan esku artu dabenen esanetan, barriro egiteko esperientzia izan leiteke onako au.

### URTE BIKO UMEENTZAKO GELEA ESKOLAN

## ALBISTEAK

Eskolako arduradunen eta udalaren arteko ekimenari esker, aurtun eskolan leenengoz ipini da martxan urte biko umeei zuzendutako gelea.

Zerbitzu au urte gitxirik ona zabaldu da inguruko eskoletan eta, beraren bearrizana susmatuta, Bakion eskaintzea pentsatu da. Izan be, gaur eguneko guraso gazteei guztiz bearrizkoa jake umeak leenago eskolaratzea, gaurko gizar-teak ezarten dauan erritmoari jarraitu aal izateko, atan be.

### BITXIKERIAK

#### ORDENAGAILUA ESKOLARA

Alemaniko Gobernuak bene-benetan artu dau teknologia barriak zabaltzeko bearrizana.

Alan, jakin eragin dau Alemaniko ume guztiek ordenagailu eroangarri bana euki bearko dabela 2006. urtea baino leen.

Interneten garrantziaz jaubetuta, Schroeder-en gobernuak guztiz infonnatizatu gura dau Alemaniko eskola publikoa.

Edelgard Bulmann Ezkuntza ministroak esan dauan tez, datorren urtea amaitu baino leen ikastetxe publiko guztiek eukiko dabe Interneten sartzeko erea eta sei urte barru ume guztiek ordenagailua croan bearko dabe eskolara.

Teknologia barrien aldeko postorea ezda merkea izango, ez orixe, zazpi bilioi pezeta kostako da eta...

#### DROGAK INOZ BAINO ADULTERATUAGO

Legez kanpoko drogak, gaur egun, inoz baino adulteratuago dagozala salatu dau Kalamudia taldeak.

Orain arte hatxixa naiko garbi eltzen zan Euskalerrira, baina azken aldian ia ezinezkoa da kalitatezko hatxixa topatzea.

Kalamudiak dinoan lez, Marokon bertan erositakoa be adulteratuta dago, autoko orioa emoten dauan substantzia bategaz naastu dabe eta.

Kokainarik geiena botikakaz naastuta dago eta *speeda* glukosagaz. Antza danez, marihuana da oraindino naiko garbi kontsumitu leiteken legez kanpoko droga bakarra.

Erretzeari izteko botikea

Urritik aurrera salgai izango da *Bupropion*, erretzeari izten laguntzen dauan botikea.

Antidepressiboen familiakoa da eta, nikotinearen terapiagaz batera, Osasunerako Mundu Erakundeak erretzeari izteko onartu dauan tratamendu farmakologiko bakarra.

OMEren datuen arabera, beste errialde batzuetan lau erretzailetarik batek lortu dau tabakoa iztea Bupropion botikeari esker.

Kontuan artu bear da, dana dala, erretzeari izteko garrantzitsuena motobazinoa dana.

#### IPARBURUA (POLOA) URTZEN

Aspalditik uste zana baieztatuta dau NASAk: Iparburua urtzen dabil, izotz plakea gero eta meeagoa da eta, ondorioz, oso errez austen da. Toki batzuetan 2.000 kilometrokoak dira arrakalak.

Izotz plakea 50 metrokoa zan orain dala urte batzuk, baina gaur egun oztan-oztan iru metrokoa da iparburuko alderdi askotan.

Jakitunek uste dabe klima aldaketeak eragin dauala iparburuaren urtzea: Luna gero eta beroago dago eta neurriak artzen ez badira, etorkizunean andiagotuko da arazoa.

### ZIDURI

#### I4IESA EUROAPAN, 1994-1998

The Lancet aldizkarian argitaratutako ikerketeak HIESak Europan beera egin dauala adierazo dau.

1994. eta 1998. urteen bitartean kasu gitxiago diagnostikatu ziran, eta. aldi beratan. tratatutako gaixo kopurua anditu egin zan.

Ikerketea Europako 17 errialdetan egin da eta tratamendu konbinatuen eraginaren ganeko ikuspegia emoten dau.

Emoitzek leenago egindako ikerketenak baieztatu dabez, au da, HIESa Europan urritu egin da. Ganera, urritzea erre-trobirusaren aurkako tratamendu gogorak asteagaz batera izan da.

Ikerketako emoitzak, bada, botika barrien eraginkortasuna egiaztatu daben saiakuntza medikoakaz bat datoz.

#### KOKA-KOLEA, TXINA'KO EKONOMIAN

Koka-kolea galazota egon zan Txinan 1979. urtera arte, baina gaur egun errialde komunistako ekonomiaren euskarri biurtu da.

Estatu batuetako konpainiak 30 lantoki daukaz Txinan eta orreetan 14.000 lagunek egiten dabe bear.

Dana dala, askoz geiago dira Koka-koleari lotutako beste lantoki batzuetan diarduen bearginak: guztira 414.000 dabilz bearrean Estatu Batuetako multinazionalarentzat.

Koka-koleak urtean 36.600 milioi pezeta (1.444 milioi libera) ordaintzen deutsoz Txinari zergetan.

#### MINBIZIAREN AURKA

Zortzi landaraz egindako infusinoa leuzemiaren eta prostatiko zein bularretako minbizi edo bizienaren aurka eraginkorra dana erakutsi barri dau Estatu Batuetan New Jersey-ko New Brunswick-en Robert Di Paola irakaslearen taldeak.

Berez, bizienaren aurka eraginkorra izan, zortzi landaretariko bat (erregaliza) baino ez da.

Erregaliz landaratik A likokalkona izeneko substantzia atara eta prostata, bular edo odoleko minbizia euken gaixoen tumoreetako zelulakaz *in vitro* egin dira probak.

Emoizta garbia izan da: tumore zelula guztiak ondatu dira. Orain animaliakaz probatzeari ekin deutsoe.

Zortzi landarako naastea daukan edabea Estatu Batuetan PC-SPES izenez saltzen da elikagai osagarri lez. Asikerako PC orrek "prostatic cancer" esan gura dau, eta ondoko SPES orrek itxaropena.

Onek dira, erregalizaz ganera, edabeak daukazan landarak: krisantemoa, palmondo mota bat, eskutalaria, eta *Isatik tinctoria*, *Ganoderma lucidum*, *Panax pseudo-ginseng* eta *Rabdosia rubescens* deritxenak.

#### MIARRITZ'EK BERE LURRINA

Christien Louis usain sortzaileak *Miarritz'eko ura* izena emon deutso lurrin barri baten. Christien Louisek usain goxoen dendea dauka Bastidan (Nafarroa Beerea) eta asko ez dala, *Miarritz'eko ura* imini dau salgai.



Usain sortzaileak esan dauan lez, guro senideen sasoiko usain bat topetan aalegindu da. "apur bat erromantikoa. gomutapenez betea".

Orain bezeroek erabagi bearko dabe emoitzea gustetan jaken ala ez.

### ITXAS-ALDE BULGARIAN

Batzuk sinistu ezinik, batez be gatzetxuenak. eldu gintzan joan dan agorrilaren 5<sup>ean</sup> Bulgariako Varna uri andira, lla arte bertan egoteko amesagaz, eta bai egon be.

Oraingo bidaia onetan atzerrira leenengoz urten dauan Itxas-Aldeko dantzari gazte piloa joan da, eta esan bear dogu taldeak ondo be olido erantzun ebalat eta ez dala askorik igarri gure taldearen barrizatze ori.

Dantza erakusketa andia izan zan angoa, ogeitaka errialdetako dantza taldeek parte artu eben eta.

Esate baterako. Egipto. Ukraina, Georgia, Turkia, Ungaria. Errusia. Mexiko, Frantzia, eta beste talde mardo bat.

Alan da ze, leku askotako jendeak ikusi aal izan eban euskal folklorea. Ori izanda zure elburuetariko bat.

### UNAI BEITIA

#### KAIAKO ATXAK

Barrero be gure itsasertzeko soslaia aztergai. Agiriko dan lez. "portuko moilako" atxak doguz berbagai. au da, Muxertratxe eta Barru-barru deritxenak.

Arteragoko alean Askadatik Gaztelugatxeraginoko tokiak aitatu bagenduzan be, oraingo onetan baina, aretzako beste alderdikoak ekarri doguz.

Lurraren berezko soslaia ez da ainbeste aldatu, atan da be gizakumeak aamen be sartu dau eskua, beraren lorratza ondo itzita be. Eta ez itxura-itxurazkoa, nire ustez.

Birgilandako etxetar "erraldoi" orrek oso-osoan apurtuten dau -eta ingurua, izadia.

Zer esanik ez, gaur egun ikusi geinkezan errekearen besaldean eta Kurutzekoatxeren auzer aurre egoan Birgilandapeko aretzatxuaren ganean eregi ebezan ibiltoki, moila eta etxe mandoari buruz.

Aitatutako gune txiki areri "Lekutxu" esaten eutsoen Bakiotarek. Ona etorten ziran gizaldi onen asikerako Bakiotarrak. ze aretza nagusia. Areaga deritxona, udatiar etorri barrientzat baino ez zan izaten. Orain dana danontzako, haina leengoa gurago.

### ANARTZ ORMAZA

#### BERBALAPIKOA

soslai = profil. itxura  
aztergai = ikergai  
lorratz = arrasto  
erraldoi = andi-andi  
izadi = natura  
gizaldi = monde

#### "AÑO MARIANO" FILMA

Zinemara croan aurretik, sarri eta luze egin zan berba "Año Mariano" pelikulearen ganean. Karlos Argiñano, Karra Elejalde eta Maria..., ez da besterik bear egunkari, telebista eta irratietan agertuteko.

Olan ikusita, pelikulea mamintsua izan leitekela pentsatu leiteke. Gaia, gitxienez, interesgarria da. Istoria be ez da txarra, baina pelikulan azaltzerakoan, ez dot uste asmatu dabenik. saltoa egiterakoan barreak nagusitu egin dira osterantzekoaren ganetik.

Makina bat gai dagoz eta barregarriak dira. Baina istorioa, orretan lotuten da, eszenetan. Aria ez dago oso ondo garatuta, bearbada, eszenak istorioa baino loba andiagokoak egin dabezalako.

Alan bada, pelikulea eskasa da, barre asko eragin arren.

### IRATZE ORMAZA

#### BERBALAPIKOA

gizaldi = monde, eun urteko  
indarrola = zentral elektriko  
argindar = elektrizitate  
Gaminiz = Plentzia. (euskal izen zaarra)  
Lirain = itxura oneko. dotore. (andrak)  
lerden = itxura oneko. dotore. (gizonak)  
atan be = ain zuzen be  
tantai = anditzar, kankailu  
etxagun = etxeko jaun  
intxaur bakoa ez izan = ondasunen bat euki.  
gogoan artu = kontuan artu. gogoratu  
udalerrri = udalaren lurraldea  
entzute = ospe. fama  
maatsondo = zopa  
bokoi = upel andia (600 litrokoa)  
upel = barrita  
ateburu = atoaren ganeko alderdia

#### XIII IPUIN-SARIKETEAK

##### OINARRIAK:

- Gaia: Ipuinak Bakion kokatuta egon bear dau.
- Edonork artu leike esku.
- 15 urterik gora, lanak idazkinez idatzita aurkeztuko dira.
- Euskeraz aurkeztuko dina lank. batuaz zein bizkaieraz. Idazlanaren luzerea geienez sei orrialdekoa eta gitxienez orri bikoa izango da.
- Aurkeztuteko epea: Azken eguna, abenduaren 11a izango da. Idazlana gutun-azal andi baten barruan sartu bear da, eta idazlearen zeatasunak beste gutun-azal txikiago baten.
- Euskera Batzordearen eskuetan lotuko dira zuzenketa-aren ardurea, azken erabagia, sariak banatzea eta argitaratzearen eskubidea.
- Lanak Bakioko Kultur Etxean artuko dira, arratsaldeko ordutegiaren barruan.

##### Adin-taldeak:

- I. 7 urterik 10 urtera
- II. 11 urterik 14 urtera
- III. 15 urterik 18 urtera
- IV. 19 urterik aurrera

Sariak: Gabon gauan, goiko pelotalekuan.

### BAKIOKO EUSKERA BATZORDEAK

# ALBISTEAK

## ASTOKERIA

Dagonilaren 14an, gaueko 10.30etan. Iru, lau, bost,... lagunek, burua estalduta eukela, txoferrari orroaka eta zemaika urten eragin ostean, Bizkaibus zerbitzuko autobusari su emon eutsoen Bakioko Bentako aparkalekuan.

Autobusa eta beraren ingurua be guztiz kiskilduta lotu ziran.

Andixik ur ebilzan oinezkoek, bariiz, bildur eta ikaraz beteta, ospa egin bear izan eben inguruetatik, badaezpadan be.

Emon be, urte asko ta asko aaleginetan emon dabe Bakioko erritarrek autobus zerbitzu ohea eta duina jaresteko.

Erritarrek eurok sendoro eskatu ez eze, erriko iru alderdi politikoen auteskunde programetan leenengotasunezko elburutzat be artua izan da asmo ori bein eta barriz.

Zerbitzu ohea geunkalakoan gengoan, bada!

Urrengo egunean, erriko askoren asarrekuntzea "betikoa-kana" bideratu zan. Au da, ezker abertzalekoakana.

Nik, ostera, autobus zerbitzu obearen alde eurok ainbeste izerdi emon eta gero, edonori jokatuko neuskio erriko Ezker Abertzaleak zitalkeria orretan ezelango zerikusik ez daukana.

Orri berberorreri jokatuko neuskio be, erriko Ezker Abertzaleak astokeria andi ori, zalantza barik, gatxeritxiko daula.

Egon be, ziur be ziur nago, buru-estaldu orreek erbestetik etorri zirana, mertzenarioen ekintza burubako eta lotsagarri ori aurrera eroateko asmotan.

Zer lortu dabe autobusa erre eta? Bada, Erriak eta, batez be, emiko Ezker abertzaleak urte askotan egindako aalegin andiari popatik emotea! Besterik ez.

Ganorabako ustel alangook!

## GORBEIA (1.475 M)

Badago Xiberoan BORTUKARIAK izeneko mendi alkarte. Bortükariak mendi alkarte sortu zanetik bete dira aurtan ogei urte.

Ogeigarren urteurrena dala-eta, Euskalerriko zazpi lurraldeetako tontor nagusietara igotea pentsatu eben, arean da:

Okabe (Nafarroa Beerea), Orhi (Xiberoa), Aizkorri (Gipuzkoa), Artzamendi (Lapurdi), Iru Erregeen Maaia (Nafarroa), Anboto (Bizkaia) eta Gorbeia (Araba).

Gorbeia igitu eben, bada, aurtongo irailaren 10ean Eurakaz batera gipuzkoar eta bizkaitar batzuk be joan gintzazan, guztira ogei bat lagun. Aurreko egunean, zapatuan, alkartu gintzazan danok Arratiako Areatzan.

Andik Pagomakumera joan eta bertako aterpetxean egin gendun lo. Urrengo egunean, goizean goizetik, Gorbeiarantz urten genduan. Lekanda tontorraren beeko alderditik bidezidomez bidezidor eldu gintzazan Amabako landa ederrera. Ederto jagonda dago, ganera.

Zer esanik ez, andik ikusten dan ingurua. Benetan ederra, gero! Arrabako landearen ondoko Gatzamieta mendian iru sai euki genduzan gure oinkadei begira.

Bidezidorra estutuz joiala, Gatzarrieta mendia inguratu genduan eta Egiriñaorantzako norabidea artu gendun. Bertara eldu eta ango aretxaga abartsuan zaldi zein beiak naia ikusi genduzan, gerizpean, abaroan egozala.

Aldamiñospera egin baino leenago, Egiriñaon dagoan iturriotz edo Lekuotz iturrian kendu genduan egarria.

Bai, ur gozoa! Oraindikarren ibilbidearen zatirik gogorena geunkan geure aun-can, Dulao izeneko sakostatik gora leenengo Aldamiñospera igitu eta andik Gorbeianera eldu teko. Baina, azkenean, eldu gintzazan kurutzegino. Bertan egin genduan otordua, lo apur bat, eta etxerantzako bidea artu. Egun-emote edema, benetan!

Bakion badago, egon be, mendi taldea bada. Joan-etorri izeneko. Oker ez bagagoz, 1978. urtean jaio zan. Urtero-urtero egiten dabe Bakioko mendien ibilaldia, San Migel egunaren arteragoko domekan, atan be.

Leen urteroko ibilaldi ori ez eze, beste mendi-urtekera batzuk be eratuten ebezan. Urteokaz, baina, eratuten izan dabezan ekintzak apalduz joan dira.

Bakiotarren eskuetan dago mendi taldea barrian bizkortutea.

Alan beite!

## BERBALAPIKOA

oxean da = au da

aterpetxe = ostatu

bidezidor = basobide. (Bakioko berbea)

sai = putre

oinkada = urrats, pauso

aretxaga = aretx asko daukan lekua

abartsu = orritsu

naia = zenbat gura. (Bakioko berbea)

abaro = aterpe, gerizpe. (Bakioko berbea)

sakosta = troka. (Bakioko berbea)

koputxu = amaiketako txikia. (Bakioko berbea)

barrian = barriro. (Bakioko berbea)

otordu = bazkalordu. (Bakioko berbea)

## SANTA AGEDA

Zezeilaren 4an, Santa Ageda bezperan, urtero lez, ibili ziran ara ona Bakioko Abesbatzekoak eta eskolako gurasoak alkartuta Agate Deunari koplak abestuten.

Aro otza amen be, ez ziran bada abeslariok bape kikildu eta erriko kale nagusian zear ibili ziran jo ta ke abestuten.

## TXAKOLINAREN JAIA

Aurtongo San Jose eguneko izarra txakolina izan da, zalantza barik. Esan leiteke idi-probek garrantzia galdu eta txakolinak cskuratu dauala.

Jendez ganezka egon zan Zubiaurreko alderdia eta bertaratu ziranek mama gozoa, txakolina, txastatu ez eze, txalki eztsua jateko aukerea be euki eben.

Arin be arin amaitu zan Gorrondona, Zabala eta Abio txakolaginek ekarritako txakolina.

A zan egarria eta txakolina edan bearra!

Xabier Euskitze bertsolaria eta ETBko aurkezlea izan zan aurtengo txakolin uztearen aitabitxia.

Izan be, orain dala 15 bat urte bertsolari lez Bakion agertu zan leenengoz jendaurrean.

Bilboko Beti Jai Alai dantza taldekoek maisukiro egin eutsoen oore-agurra. Azoketan egoten diran lez, Bakion be abere eta piztiak egon ziran ikusgai.

Eta ez edozelangoak, gero!


Arrastian, barniz, umeentzako Gorritiren piztiak eta nagusientzako idi-probak, 55. Bakioko Txapelketaren azkena, atan be.

INIAKI MARTIARTU

# EUSKALDUN BARRIENTZAT




Marrazki onetan 7 erru daukazuz.




Nortzuk izango dira saridunak?

Azalpena:  
4-1  
3-2  
2-3




Sagutxuak zer eroaten daben jakiteko, margoztu: 1 orlegi-argiz, 2 orlegi-illun, 3 baltzez eta 4 urdin argiz.



**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa